



BARREN
TOKIKOM



Mingainak dantzan

BERTSO-SAIOA ELGOIBARREN

HERRIKO ANTZOKIA
Abenduak 28, astelehena
22:00

Maialen Lujanbio

Alaia Martin

Andoni Egaña

Miren Amuriza

Jon Maia

Gai-jartzailea: Uxue Alberdi



Sarrereren aurre-salmenta: abenduaren 9tik 23ra
Elgoibarko Izarran (09:00-14:00 / 16:00 – 18:30)

Antolatzailea:



ELGOIBARKO IZARRA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO
UDALA

KULTURA

elgoibar
bizi-bizirik



Gipuzkoako Foru Aldundia



HEGURTELA, HERRIAREN POLITIKA
ETA BIZI-BIZIRIA

HEGURTELA, HERRIAREN POLITIKA
ETA BIZI-BIZIRIA



JAVI MUÑOZ

“Gure amodioa sekretuan eramaten jarraituko dugu, eta ikastolan elkarri begirada lizunak botatzen jarraituko dugu”

Nahikoa da hainbeste gerra eta guda, gaur nire maitari idatziko diot. Utz dezagun guztia, ihes egin dezagun eta lizarpe okupatu. Kapitalismotik urrun biziko ginateteke, meloiondo bat landatuko genuke Gaintxipiaren magalean, zu, nire muxar afrikarra, ni, zure hartz poliamoroso.

Udaberrian Lizarrolatik paseatuko genuke, eskutik oratuta, Judith Butlerren sexua eta sexualitatearen teoria performatiboari buruz hitz eginez eta elkar-iraultza egingo genuke bidearen edozein bazterretan.

Udan, enperadore erromatarrek bezala, gure erreinuko meloiak jango genituzke Azpilgoetako arteapean, Decathloneko koadrodun manta baten gainean etzanda.

Ilunabarrean topless eta kantzontziloless egingo genuke Santakrutzen, gure zakilak lau haizetara kulunkan Leonard Cohen-

en take this waltz kantuaren doinuan, I'll yield to the flood of your beauty.

Udazkenean, Iñigok Trinitateko ermitan ezkonduko gintuzke eta Mendaroko lagun guztiak gonbidatuko genituzke, eta kristoren akelarre LGBTQI-a montatuko genuke Aitzbeltzeko kobazuloan.

Rafa, pikutara maskulinitate hegemonikoa, patriarkatua, heteronormatibitatea, homofobia..., gora poliamorea, zu, nire muxar afrikarra, ni, zure hartz poliamoroso.

Negua gerturatzen ari da.

Polita izango litzateke, bai; baina koldarrak gara, eta gure amodioa sekretuan eramaten jarraituko dugu, eta ikastolako partioan elkarri begirada lizunak botatzen jarraituko dugu, eta jardunaldiak antolatuko ditugu batera mozkortzeko aitzakia izan dezagun.



RAFA FURNIER



“Jabi, zu zara nire Aingeru Urdina”

Atean atentzioa deitzen duen izen bat, Aingeru Urdina. Agian horrek bultzatu ninduen sartzera. Behin lokalean nengoela begirada guztiak gela ilun batera zuzentzen ziren. Sartu nintzen. Erabateko iluntasun batek nire lehenengo pausoak gidatu zituen, esku sendo eta maitakor batek oratu ninduen arte. Besarkatu egin ninduen. Musukatu ninduen. Estutu eta berriro musukatu ninduen. Bi egunetako bizarraren urradura sentitu nuen aurpegian eta Eroskiko txanpuaren eta Alhambra garagardoaren arteko nahasketaren usaina.

Otarrainak bezala iraulkatzen ginen gidoirik gabeko dantza sinkronizatu batean, maitatzeko egokitu genuen urrutiko bazter horretan. Ezkutaturik. Ilunpetan. Izenik gabe. Aurpegirik gabe.

Irten nintzen. Barran jarri nintzen. Tarte batean irten zinen *Mendaro Sasoian* irakurtzen zen kamiseta batekin; momentu bereziak gogora ekarri zizkidan eta frontoian egindako kus-kusaren eta gure

artean su motelean kozinatutako kus-kusaren arteko paralelismoa egin dut. Elkarri begiratu genion. Joan zinen. Bakarrik gelditu nintzen.

Sentsazio goxo batek ohetik altxatu ninduen, horretan pentsatzen jarraitu nahi nuen, zer gertatu zitekeen pentsatzen jarraitu nahi nuen, zutaz pentsatzen jarraitu nahi nuen.

Eskolan umeak utzita banindoala, zurekin aurrez-aurre topo egin nuen; *Mendaro Sasoian*-eko kamiseta soinean, egun batzuetako bizarra, lepoan orbana eta Eroskiko txanpuaren usaina kafe tanta batzuekin. Jauzi bat eman eta hotzikara sentitu nuen, dena eta ezer ez kontatzeko gogoaren sentipena.

– Nire meloi zuhaitzetik meloi bat jatera gonbidatzen zaitut – esan zenidan keinu eginez.

Momentu horretan pentsatu nuen: “Jabi, zu zara nire Aingeru Urdina”.



ANDER SORALUZE

Informatikaria

Segurtasun kopiak

Aukera erraz eta eraginkor bat segurtasun kopiak dira. Hau da, normalean dauzkagun gailutik aparte, gure fitxategiak beste nonbait ere gordetzea. Adibidez, noizean behin gure fitxategiak DVD, pendrive edo disko gogor eramangarri batera kopiatu daitezke... eta hauek, ahal dela, gure ordenagailua dagoen lekutik urrun gorde: gurasoen etxean, lantokian ala, besterik ez bada, etxeko beste puntan. Ez da batere ohikoa, baina suteak, uholdeak etab. gertatu egi-

“Gehienok badaukagu ondo gorde nahi dugun informazioa gure ordenagailuetan: gure musika bilduma kuttuna, hainbat opor eta parrandatako argazkiak... denetarik”

ten dira. Kopia hauek eskuz egin ditza-kegu, baina badira automatikoki egiten duten debaldeko tresnak ere.

Beste modu errazago eta seguruago bat gure datuok *hodeian* gordetzea da, interneten alegia. Google Drive, Dropbox, OneDrive edo antzerako zerbitzu gehienek ematen dute debalde erabiltzeko aukera eta, normalean, nahikoa izango dugu. Hauetakoren batean kontu bat sortu ondoren, komenigarria da bere “agente” edo “bezero” deritzon aplikazioa gure ordenagailuan instalatzea. Aplikazio hauek egiten dutena gure ekipoko karpeta jakin batzuk automatikoki sareko karpetaekin sinkronizatzea da. Hau da, nire argazkiak kameratik ordenagailura pasa ahala, automatikoki internetera ere kopiatuko dira (eta hala, gainera, mugikorretik ere eskuragarri edukiko ditut). Hala, etxeko ordenagailua puskatzen bazait ere, beste edozein ordenagailurekin sarera konektatu eta nire informazioa eskuragarri izango dut”.

Aurrekoan lagun bat arazo batekin etorri zitzaidan. Bere doktoretzako dokumentazio guztia ordenagailuan dauka gordeta baina, azken egunetan, ordenagailu hori ez dabil; ezin du piztu ere egin! Zorte ona badauka, ez du informazioa galduko, baina bestela...

Gehienok, doktoretzarik egiten ari ez baldin bagara ere, badaukagu ondo gorde nahi dugun informazioa gure ordenagailuetan: gure musika bilduma kuttuna, hainbat opor eta parrandatako argazkiak... denetarik. Zer egin dezakegu nire lagunari gertatutakoa ekiditeko?



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Suskalkulatuaren Erakundeak

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio, Leire Alberdi **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:

elgoibar
1821-2021

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ZORIONAK, ELGOIBAR!

“Bideo horren atzean herri bat dago, bizirik dagoen herri bat!”; “Emozionatu egin naiz, aspaldiko partez; malkoak irten zaizkit behin baino gehiagotan!”; “Ez dut berriz esango Elgoibar itsusia denik”. *Beitxu, beitxu!* lipduba hara eta hona zabaltzen hasi denean jasotako hiru erantzun dira. Zapatuan poza, emozioa, harrotasuna, herri-izaera eta antzeko sentimenduak azaleratu ziren elgoibartarron begi eta aurpegieta. Lurrikara txiki bat izan zen.

Pozik gaude, denok, mila lagunetik gora bildu ginelako euskarak 365 egun dituela aldarrikatzeko. Elkarteen eta jendearen parte-hartzea izan da, beharbada, ekimen horrek izan duen altxorrik preziatuena. Hamabost lagun antolakuntza-lanetan; 17 lagun *Beitxu, beitxu!* kanta sortu eta grabatzen; 60 elkarte eta 700 lagun inguru bideokameraren aurrean; ehunka lagun plazan eta kale bazterretan, ekimena babes-ten; 25 lagun dena ondo irteteko antolakuntza-lanetan; 22 taberna

pintxo-poteoa antolatzen. Dударik gabe, egin dugunak besteko garrantzia dauka egiteko moduak.

Pozik gaude, baita ere, euskaraz bizi nahi dugula jai-giroan aldarrikatu dugulako. Esku artean daukagun erronka oso serioa da (*Euskara ala ez-kara!*, Gotzon Garate zenak zioen moduan), baina herria euskalduntzeko bidea alaitasunari eskutik helduta egin nahi dugu.

Eta pozik gaude, azkenik, euskaldunak izateko gogoia eta beharra kalean aldarrikatu dugulako. Euskara ikasgeletatik, euskaltegietatik, hitzaldi-geletatik eta antzeko tokietatik atera eta Elgoibarko kaleetan bistaratu dugu; herriko plazan esan dugu euskaraz bizi nahi dugula.

Azaroaren 28a pasa da, eta Euskararen Nazioarteko Eguna ere bai. Orain, zapatuan esan, sentiitu eta bizi izandakoak egun bateko kontuak ez dira erakutsi behar dugu. Izan ere, egun bateko euskaltasunak ez gaitu euskaldun egingo. Zorionak, Elgoibar!
Elgoibarko Euskarak 365 Egundaldea

► OKERRAK ZUZENTZEN

Joan den astean, elikagaien bilketari buruzko albistean, hanka-sartzea egin genuen. Nahi gabe nahastu genuen Sanlo eta CD Elgoibarrek bilketan egin beharrekoa, eta informazioa alderantziz eman genuen. Barkatu endreduak.

BARREN astekaria

► OHARRA

Datorren asteko zubia dela eta, ez dugu aldizkaririk kaleratuko. Hurrengo alea, beraz, abenduaren 18an kaleratuko dugu. Eskerrik asko.

BARREN astekaria



**EZKONTZAK
BATAIOAK
JAUNARTZEAK
AGURRAK
KINTADAK**

KARAOKE arekin

ORDUTEGIA

7:30etik 22:00etara

Astolehen arratsaldeetan itxia
Igandotan erretserba eginez gero zabaik.

Sigma
jatetxea

“Berezitasuna EGUR-IKATZETAN”

Tel.: 943 748 531
675 708 160

sigma.jatetxea@gmail.com

Euskararen aldeko aldarri bizia Elgoibarko kaleetara atera zuten ehunka euskaltzalek aurreko zapatuko lipdubean

Aurreikuspenak bete ez ezik, gainditu egin ziren aurreko zapatuan. Euskararen aldeko jai erraldoia bihurtu zen euskararen alde antolatutako lipduba. Ehunka lagun gerturatu ziren erdiguneko kaleetara, batzuk talde edo elkartek bateko kide moduan eta beste batzuk herritar moduan parte hartuz.

Elgoibarko Euskarak 365 Egundak antolatutako ekimen honek Elgoibarko kanpo ere oihartzun zabala izan du Euskararen Nazioarteko Eguneko ospakizunen harira. Lipdubaren bideoa, argazkiak eta aipamenak sare sozialen bidez erraz zabaltzen dira. Lerro hauek idazterakoan, *barren.eus* webguneak zabaldutako bideoak ia 20.000 bisita izan ditu.

Herritarren partaidetza eta haien arteko lankidetzak agerian gelditu ziren aurreko zapatuan. Josu Mujika dantzari eta koreografoaren zuzendaritzapean, *Beitxu beitxu* izeneko lipdubean 60 elkartek eta 700 bat lagunek parte hartu zuten kameraren aurrean. Eta beste askok ere euren kabuz ere jardun zuten.

Atzo, eguna, Euskararen Nazioarteko Egunean, lipdubaren proiektioa emateko zen Herriko Antzokian, arratsaldean.



Gehigarri bateratua, erdaraz

Bestalde, BARREN aldizkariak, TOKIKOM tokiko komunikabideen bateraguneko beste zenbait hedabiderekin batera, gehigarri berezi bat kaleratu du (ale honetako 12. orrialdetik 17.era), Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta. Gehigarriak, berezitasun bat dauka: gaztelaniaz eta herriko beste erdaretan idatzita dago. Orain arte inoiz egin gabeko proba izan da, puntuala, euska-

razko toki hedabideen munduaren lana eta arrazoiak beste esparru batzuetan ezagutarazteko.

"Bagenuen gogoia euskaraz ez dakiten horiei gure jardunaren berri emateko. Toki komunikabideak garen neurrian, gure herri eta eskualdeetako bizilagunak ditugu mintzagai nagusi, euskaraz jakin ala ez. Eta hori azaldu nahi izan dugu gaurko edizio bereziarekin: gure zentrua tokiko komunitatea dela, eta horrexegatik dihardugula euskaraz. Euskara ere gure komunitatearen parte delako. Bada-kigula beste hizkuntz komunitate asko ditugula inguruan, eta horiek ere atek zabalik dituztela gure medioetan. Gure inguruan gertatzen dena axola zaigula, edozein hizkuntzatan gertatuta ere", TOKIKOM-en arabera.

"Gainera, euskal komunitatearen berri eman nahi izan diegu auzokide ditugun beste komunitate horiei. Horregatik, Euskaltzaleen Topagunearen eta TOKIKOM-en arteko lankidetzari esker, gai gehigarri komun bat ere argitaratu dugu, gure mundutxo honen berri emanez", adierazi du.



16.550 kilo elikagai batu dira aurten, aurreko bi urteetan batutako guztia beste



Elikagai bankuarentzat 16.550 kilo jaso ziren aurreko asteburuan Elgoibarren. Hau da, aurreko bi urteetan jasotako guztia batutakoa beste. Guztira 120 lagunek lan egin zuten modu boluntarioan. Elgoibarko Udala pozik agertu da. "Emaitzak eta inplikazioa ikusita, Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Gizarteratze Mahaiak eskerrak eman nahi dizkiete elgoibartar guztiei eta ekintza hau aurrera eramaten lagundu duten guztiei. Arrakastak 2016ra begira aukera eta ate berriak zabaltzen ditu", adierazi du.

Elgoibarko kirol sailak eta Sanlo zein CD Elgoibarrek ere bilketarekin bat egin zuten. Eskubaloi taldeak bere bazkide, jarraitzaile eta aurkarien artean zabaldu zuten deialdia eta emaitza 400 kilo elikagai eta 380 eurokoa izan da. *Kirolari bat, kilo bat* kanpainak ondo funtzionatu du. Bestalde, CD Elgoibarrek futbolarien artean 50 kilo elikagai bildu zituen.

Josu Esnaola elgoibartarrak Argia Ereiten Euskara Saria jaso du Getxon

Seigarren Argia Ereiten Euskara Saria jaso zuten martitzenean Josu Esnaolak (Elgoibar, 1962) eta Alfredo Lopez Gereñu Bertxok (Donostia, 1971), Getxoko alkate Imanol Landaren eskutik. Euskararekiko izan duten konpromisoagatik eta, bereziki, orain dela 19 urte Berbalaguna ekimena Getxon martxan jartzeagatik jaso dute Getxoko Udalak ematen duen sari hori. Euskaltegiko irakaslea da Josu Esnaola. Sortzez elgoibartarra den arren, makina bat urte daramatza Getxon.



Gurutze Gorriak jostailu berriak jasoko ditu

Datorren astean (hilak 11 eta 12) jostailuak jasotzeari ekingo dio Elgoibarko Gurutze Gorriak, premia duten umeen artean banatzeko. Aurten, baina nobedade bat izango da: jostailuek berriak izan beharko dute. Elkartasun kanpaina honekin bat egin nahi dutenek datorren barixakuan (abenduak 11) Gurutze Gorriaren lokalera joan beharko dute 17:00etatik 20:00etara edo bestela abenduaren 12an 11:00etatik 13:00etara nahiz 17:00etatik 20:00etara. Gurutze Gorriaren arabera garrantzitsua da balioetan hezteak. Horregatik "giza-eskubideen eta haurren eskubideen errespetua eta parte-hartze demokratikoa sustatzen ari dira.



Ainara Ladronen aurkako epaiketa berriz atzeratu dute

Ainara Ladron elgoibartarraren eta beste lau gazteren aurkako epaiketa martxoaren 2ra atzeratzeko erabakia hartu du epaileak, prozedura akatsak argudiatuta. Auzipetuek, baina, prozeduran akatsik ez dela gertatu diote eta haien haserrea agertu dute, orain dela ia bederatzita urte gertatutako ekintzaren epaiketa laugarren aldiz atzeratu delako. Epaiketa martitzenean zen egitekoa. "Ezin gaituzte hain denbora luzean horrela eduki", kexatu da Ainara Ladron. Desobedientziaren bidetik lan egiteko konpromisoari eusteko asmoa nabarmendu du elgoibartarrak.

Barazkiak, ganaduak, dantza, musika, herri-kirolak eta saiheski errea Kontzezio Azoka biribila osatzeko

Kontzezio azoka. Izenak dion bezala feria da jaiaren oinarria eta aurten ere barazki eta ganaduak bistaritzen hasiko dute eguna Mendarok. Lasturko Goikola eta Mutrikuko Goienetxeok gazta jarriko dute; Sorailuzeko Itxostek eta Mendaroko Atxurik marmelada; Segurako Eugenio Elorzak, Elgoibarko Julian Villenak eta Zestoako Manuel Odriozolak ezta; barazkiak, berriz, Berrizko Andikonagoitiatik, Mallabiko Agartetik, Markinako Baskarantetik, Sorailuzeko Arizogatik, Antiatik eta Jose Lonbidek ekarriko dituzte. Mendaroko txokolata erosteko aukera ere egongo da. Ohiko azoketako beste hainbat postu ere izango dira.

Ganaduetan, berriz, Sahatzuk limusinak, Sarubek ardiak, Ibirik betizuk, poniak eta astoak, Garatek pirenaiak, Aintze Ansorregik eta Agarre Txikik behorrak, Goikolak ahuntzak eta Asier Rubiok moxalak, txerriak eta oilaskoak jarriko dituzte ikusgai.

SAGARDOA AUKERAN

Sagardoa dastatzeko aukera ere

izango dute azokara gerturatzen direnek. Adunako Aburuzakoa, Hernaniko Alberrokoa, Aiako Izetakoa, Astigarra-gako Lizeagakoa eta Petritegikoa eta Usurbilgo Urdairakoa.

HERRI KIROLAK

Arratsaldean, herri-kirol saioa egingo dute frontoian. Ugaitz Mugerza eta Iker Vicente aikolariak nor baino nor arituko dira hamar kanaerdiko zeinek lehenago ebaki. Joxe Ramon Iurretagoiena *Izeta II* eta Inaxio Perurena harrijasotzaileek, berriz, erakustaldia egingo dute forma eta pisu ezberdineta harriekin.

Herri kirolen ostean, Angel Garatek prestatutako saiheski errea jateko aukera izango da. Pintxo bakoitza euro batean erosi ahal izango da eta Arno guraso elkarteak jarritako txosna egongo da edarietarako. Goizeko sagardo dastaketatik edaririk soberan badago ere jarriko dute aukeran. Hori guztia laguntzeko Jodelu anaiak taldearen zuzeneko musika saioa egongo da.



ABENDUAK 5, ZAPATUA

9:30 Barazki eta ganadu azoka.

11:00 V. Sagardo lehiaketa.

12:00 Mendaroko Trititixa dantza taldearen kalejira.

12:30 Izetako idiek gidatutako gurdian ibiltzeko aukera.

13:00 Dantza ikuskizuna: Tio Teronen semeak. *FreshCool*.

Jarraian, sari banaketak.

18:30 Herri-kirolak, Goñati Pilotalekuan.

Gero, saiheski errea dastatzeko aukera eta dantzaldia Joxelu anaiak taldearekin.

KONTZEZIO EGYNEKO AZOKA

ABENDUAK 5









Umirezko ikuskizun dantzatua

Tio Teronen Semeak etorriko dira bihar, zapatuan, Mendaroko plazara *Freshcool* ikuskizunarekin Kontzezio azokari dantza giro berri eta freskoa ematera. Jaiaren bidera pausoak ematea izaten da herrian Kontzezio azokaren aitzakian askok egiten duena eta dantzariak ere parranda giroan koadrila batek bizi dituen kontuak islatu nahi dituzte ikuskizunean. Askotariko dantza estiloak ez ezik doinu mota bat baino gehiago ikusi eta entzungo dituzte plazara gerturatzen direnek. Ikuskizun berria eta berritzailea, originala; dantza gustuko duenak gozatzeko modukoa eta asko harritu ditzakeena.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

Dantza eta umorea uztartzen dituen ikuskizuna da *Freshcool*. Tio Teronen Semeak taldeak egun bakarrerako prestatu eta izandako arrakastaren harira beste hainbat emanaldi egin ditu, tartean Mendarokoa. Partaideek zein ikusleek ondo pasatzea da taldekideen asmoa eta horretarako dantzariak, inolako konplexurik gabe eta umorez orain arte ez bezalako ikuskizuna eskainiko dute. Izan ere, bost dantz ataldetan elkar ezagututako dantzariak bildu dira eta batik bat bi ezaugarri elkartu ditu dantzatzeko pasioak eta umoreak. Emanaldi eta bidaietan dantzariak sortutako ideia graziosoak izan dira besteak beste emanaldi hau osatzen lagundu dutenak eta *Freshcool* izena ere berrieta freskoaren adierazgarri da.

Urtetan barrena euskal dantza tradizionalen murgildutako dantzari eta musikariak izan arren, ikuskizun honetan ez dute %100ean horrelakorik eskainiko. "Dantza anitza da eta dantza mota eta estilo asko egingo ditugu. Dantzariok euskal dantzatik gatozenez euskal dantza presente egongo da –pausoak hor daude–, baina Rock&Roll-a, tangoa, pop-a edo estilo garaikideagoak ere izango dira. Ez da euskal dantza beste zerbaitekin fusionatua, baizik eta dantza egiten dugu eta bertan euskal dantzak bere zatia dauka. Argi ikusten da non dagoen sustraia eta zer maitatzen dugun, baina egingo dugun hori ez da erabat euskal dantza, gauza ezberdin bat egin dugu", esan digu Aritz Salamanka zuzendariak.



Dantzan bezala musikan ere aniztasuna izango da. Euskal melodiez gain, bestelako kantu herrikoiak edo parranda giroan entzuten diren abestiak ekarriko dituzte zuzenean. Euskal instrumentuak ez ezik batukadetan ohikoak diren beste instrumentu batzuk ere joko dituzte: txistua, txirula, klarinetea, danbolina, atabala, txalaparta, yembeak, darbukak...

DANTZA ETA PARRANDA UZTARTUZ

Parrandetako kantuak dira batzuk, bai, izan ere, jai eta koadrila giroa da ikuskizunaren oinarria. Hamar dantzari eta hiru musikari osatuko du Mendarora "parrandara" etorriko den lagun koadrila. Herriko plazan trago bat hartu, elkarren berriak kontatu eta ordu batzuetan errutinatik ihes egingo dute dantzaren bidez. Lagun arteko konplizitateak, adar jotzeak, apustuak, amodio kontuak... horiek guztiek aktibatuko dituzte beren gorputzak. Salamankaren esanetan, "hori guztia dantza bidez plazaratzen dugu. Haria jarraitzen laguntzen duten bertso batzuk badauden arren dantza da funtsa, gure gorputzarekin hitz egiten dugu".

Ikuskizuna 45 minutu ingurukoa izango da eta berritasuna azpimarratu du zuzendariak mendarora eta ingurukoei gonbitea egiteko. "Orain arte ez da horrelakorik izan eta gutxitan ikus daitezke horrelako ikuskizunak debalde. Beraz, gustatuko zaien ala ez, ikusi ezean ez dute jakingo, baina dantza saio apurtzailea, berritzailea dela behintzat esan dezaket".

“Irribarre batekin joango gara parean dugun mamu beltz horren aurrera”

JOSEBA ZINKUNEGI 04/08 SUMARIOKO AUZIPETUA



Atzo zen astekoa Joseba Zinkunegi eta beste 34 euskal herritarren aurkako epaiketa. Ezker abertzaleko buruzagitzako kide izatea leporatuta, fiskaltzak hamarna urteko kartzela zigorra eskatzen du bakoitzarentzat. Martxora arte, saio ugari aurreikusi ditu Auzitegi Nazionalak. Abenduaren 16ko saioan Arnaldo Otegi deklaratu du lekuko moduan. Zinkunegi 2008ko otsailean atxilotu zuten, ezker abertzalearen egitura politikoa desegiteko Segurako sarekatatik lau hilabetera. Bi urte eman zituen kartzelan.

- OIER NARBAIZA -

◆ Nolakoak izango dira datozen hilabete hauek zuentzat?

Hamar urte dira prozedura honetan hasi ginenetik! Gainean dugun Damoklesen ezpata da hau. Saiatzen naiz bizimodua ahalik eta normalen egiten, baina egia da honek guztiak baldintzatu egiten zaituela. Jende askori, gainera, epaiketak zailtasun handiak ekarri dizkio bere lana dela eta. Horrelako prozesu batek barrutik mugitu eta baldintzatu zaitu. Proiektu pertsonalak badituzu –familia eta abar– mamua beti hor dago. Hamar urte luze hauetan horrela izan da.

◆ Aietetik lau urte pasata, jardun politikoak epaitzen segitzen da. Deigarria...

Aurreko elkarrizketa batean komentatzen genuen Ainara Ladronek eta biok: lekuz kanpo, garaiz kanpo daude epaiketa hauek. Lau urte pasatu dira ETArek jarri duera armatua amaitu zenetik eta herri honek hartu du norabide bat gatazka konpontzeko, bakearen alde. Baina estatuak ez du inolako eskaintza demokratikorik herri honentzat. Eta zer egiten du? Ikusten

duenez hemen prozesu bat abian jarri dela eta martxan dagoela, ahal duen eta neurririk gogorrenak eta zorrotzenak hartu ditu. Presoen gaiaren inguruan ere ez du inolako urratsik ematen, jakitun delako horrek ez bada mugitzen prozesua blokeatu litekeela. Anakronismo horretan epaiketa politikoekin jarraitzen du prozesua bera baldintzatzeko eta ahalik eta oztopo gehien jartzeko.

◆ Zer mezu eramango duzue?

Garai hartan ere Euskal Herriaren independentziaren alde lanean ari ginela eta gaur egunean ere helburu horretara begira ari garela lanean adieraziko dugu; ez direla espetxeak betetzeko garaiak, herri honek apustu bat egin duela bakearen, demokraziaren eta gatazka gainditzearen alde. Horri begira lan politiko bat egin genuen. Eta gaur egun ere, bakoitza bere lekuan dagoela, lan politiko horrekin jarraituko dugu. Nolabait ere, ikusita estatuaren jarrera inobilista, hemen egin behar dena indar metaketa da. Indarrak bildu behar ditugu, mugitzen ez den ha-

rritar hori denon artean mugitu dezakegula esan nahi dugu metaforikoki. Epaiketa politikoaren kontrako aldarria ere egingo dugu, Euskal Herri independente eta sozialista bat nahi dugula, bakearen aldeko apustu garbia egiten dugula, 35ak bake emakume eta gizonak garela.

◆ Hainbeste epaiketarekin, ez da zailagoa mezu hori zabaltzea?

Beste bat gehiago da. Jendea ohitu egin da. Baina jaso dugun atxikimendu maila handia da. Epaituak izango garenon herrietan elkartasuna erakutsi digute eta jendea mugitu da. Jaso dugu elkartasuna, euskal gizartearen gehien-goak, nahiz eta epaiketa hauekin asper-tuta egon, erantzuten du. Jendeak ez ditu era honetako epaiketak, lekuz kanpo daude. Estatuak ez du Euskal Herriarentzako eskaintzarik. Zer egiten du? Katalunian bezalaxe, ate guztiak itxi, orain arte egin duenarekin jarraitu. Gu erantzutera joango gara. Parean dugun mamu beltz horren aurrera irribarre batekin joango gara.



Kultur Etxeko itokina: Azken euri jasetan sumatutako traba baten harira irakurle batek zera esan digu: "Kultur Etxearen teilatutik ur parrastada handi bat erortzen da euri asko egiten duen egunetan. Kalebarren plazako atzeko partean, merkatu plazatik Udaltzaingoko bulegoa dagoen parketxora bitartean horrek trabak eragiten ditu. Izan ere, ibilbide hori egiten dugun jendeak, besteak beste, zubia guratzu eta Deba kalerantz joan behar dugunok, aterkiarekin babestuta joan arren, bustitzeko arriskua izaten dugu, baita hor sortzen den putzuan hanka sartzeko ere. Beraz, negu giroa iritsi denez eta euria gero eta sarriago egiteko arriskua dagoenez, itokin hori ahalik eta lasterren konpontzea eskatzen dugu".

Pedro Migel Urruzuno kale hasierako argiztapena ez da egokia: "Pedro Migel Urruzuno kalearen hasiera, Sabadell Guipuzcoano banketxearen ingurua, eguneko ordu batzuetatik aurrera oso ilun egoten dela iruditzen zait, negu partean goiz iluntzen denez, nabarmenagoa da. Hainbat argi berri ipini zituzten arren, oraindik ere argiztapena ez da batere egokia. Kalean aurrera jarrituz gero sekulako argi kontrastea egoten da. Herriko gune horren inguruan bizi naizen emakume bat naiz eta han bertatik ibili behar izaten nahizenez, eskertuko nuke kaleko argiztapena egokitzea batik bat oinezkoak modu seguru eta erosoan ibiltzeko kaleko alde horretan ez baita nahikoa dagoen argitasuna".



Jostailuen erakusketa eta katalogoa: "Guraso naizen aldetik, eskerrak eman nahiko dizkiot Atxutxiamakari aurten ere jostailuen erakusketa antolatu duelako. Hirugarren urtez haurrekin bertaratzeko aukera izan dut eta benetan merezi duen ekimena dela uste dut. Aurten gainera jostailuen aukeraketan kontuan hartu beharreko hainbat oharrez eta jostailuen irudiz osaturiko katalogo erabilgarria banatu dute. Gaur egun ohikoak diren katalogo eta iragarki sexistetatik harago aukeraterik badagoela argi eta garbi utziz. Jostailuen aukeraketan azken finean gurasook ere badaukagulako zer esan eta erantzunkizun garrantzitsua".



Sallobenteko bidea konponduta: "Egunero, goizeko zazpietan, Sallobente auzoko ibilaldia egiten dugun lau emakume gara eta eskertu nahi dugu Sallobenterako bidean, Ibar Txiki eta Ibarrenea baserrien arteko bidea konpondu izana. Zuloak eta koskak zeuden eta lautu egin dituztenetik gure eguneroko ibilaldia erosoagoa da. Beraz, Udalari eta bereziki Udal landa inguruko arduradun Ioseba Arrizabalagari eskerrak eman nahi dizkiegu, guk Udalean egindako konponketa eskariari erantzuna eman diotelako. Horrela, gu ezezik beste oinezkoak ere hobeto ibiliko dira".

Txarriduna jatetxeko kontzertu lirikoa: Irakurle batek Txarriduna jatetxekoak txalotu nahi ditu orain dela hilabete afari lirikoa antolatu zuelako. Consuelo Garres sopranoak, Iker Casares tenoreak eta Borja Rubiños piano joleak eskaini zuten kontzertua afariaren bueltan. "Ondo afaltzeaz gain, kontzertua ere oso-oso polita izan zen eta horrelako gauzak antolatzea asko eskertzen da. Aurrerantzean ere gustatuko litzaiyuke antzerako ikuskizunekin gozatzeko aukera izatea".

Queremos vivir los

Lo venimos repitiendo cada 3 de diciembre: ¡queremos ser euskaldunes los 365 días del año! Esa fue una de las reivindicaciones del multitudinario lipdub celebrado en las calles de Elgoibar el pasado sábado. Es importante que todas y todos lo comprendamos: ser euskaldun significa vivir en euskera; supone hablar en euskera con familiares, amigos o compañeras de trabajo; ser atendido en nuestra lengua por el pediatra o la juez; escribir emails, ver la tele, soñar y pensar en euskera. En definitiva, vivir en euskera es utilizar nuestra



365 días en euskera

lengua aquí, sin barreras ni impedimentos. Los 60 medios de comunicación agrupados en TOKIKOM, entre los que se encuentra BARREN, también perseguimos este objetivo, tratando de ocupar un espacio digno en el ámbito de la información local. Aprovechando el día internacional del euskera vamos a explicar nuestro proyecto a todas y todos, para evitar prejuicios y malentendidos, para que comprendamos lo importante que es vivir en euskera para nosotras y nosotros. Tal vez –ojalá–, algún día también sea importante para tí vivir ser euskaldun.



Esperando a la nueva ola

La gran diferencia es que aquí, en el país del euskera, esa ola... la creamos nosotros y nosotras mismas, con nuestro impulso y energía.

Llevamos medio siglo generando ondas expansivas a favor de una lengua milenaria y bellísima, como lo son todas las que se han desarrollado en el ancho mundo. Códigos de comunicación que han viajado en el espacio y en el tiempo, en la boca y en la mente de sus hablantes, de sus pensantes. El euskera es la más antigua y fiel maleta de viaje con la que contamos. Nos acompaña desde siempre, en los días y en las noches, en el verano y en el invierno, en las alegrías y en los pesares. No tiene fondo, pero es ligera. Vuela con cada una de nuestras palabras y pensamientos.

Y hoy, su espacio aéreo y mental está mucho más transitado que hace cincuenta años. No albergamos dudas al respecto.

El país del euskera es ahora otro, y lo es por aire, por tierra y por mar, tras medio siglo que llevamos de surf idiomático, de coger una y otra ola, como fueron el diseño y propagación de un euskera unitario —el batua—, la enseñanza en euskera desde la guardería hasta la universidad, la creación de medios de comunicación en radio, televisión, prensa y ahora internet, etc.

Ondas de energía concebidas, impulsadas y apoyadas por personas e instituciones, fueran vascoparlantes o no, cuyo objetivo era proporcionar un hábitat sano para un idioma que, durante siglos, había sido arrancado de sus zonas más fecundas. Primero de las llanuras y luego de muchos valles, hasta que quedó casi confinado en el verdadero oasis que fue, para el euskera, el mundo rural más imbricado en la naturaleza. Esa geografía dispersa, a la manera de un archipiélago de altura, de nuestros caseríos y pueblos de montaña.

Afortunadamente, el apartheid físico y mental de nuestra lengua comenzó a ser derruido hace medio siglo, pero no mediante un tra-



bajo de derribo, sino de construcción, gracias al cual, a que nuestra gente así lo ha querido, el mundo es hoy muy otro, y hace décadas que el euskera fluye en boca de miles y miles de hablantes que nunca conocieron entornos rurales y recogidos, sino todo lo contrario, la sociedad interconectada y supercableada de las redes urbanas.

La devolución de herramientas y entornos favorables para el eus-

kera ha sido una iniciativa colectiva que nuestra sociedad ha protagonizado con determinación, alegría, generosidad, esperanza... y añádase cualquier otro atributo que sugiera ilusión compartida.

Fue aquél un pacto social mayoritario, espontáneo e instintivo, que hoy, ante los retos que nos plantea este mundo actual surgido tras la crisis, amenazador y progresivamente desigualitario, merece ser suscrito de nuevo por quienes creemos en la restitución de un hábitat justo y sano para nuestro idioma.

Creemos en la convivencia de las lenguas y en el reconocimiento recíproco de sus hablantes, cuyos derechos lingüísticos deben ser no sólo reconocidos, sino también protegidos e incluso espoleados. Y percibimos un cierto estancamiento con respecto a la consideración que se debiera tener hacia el idioma que nos constituyera desde siempre como hablantes y como pensantes.

Es por ello que planteamos un nuevo pacto social, que incluya lo político y lo personal, lo laboral y lo poético, la mente y el cuerpo.

La nueva ola del euskera, que en breve será alzada con aquella misma determinación de hace medio siglo, pero mediante un músculo colectivo nuevamente oxigenado y, ahora sí, poderoso en su diversidad, tras infinitas experiencias en todas y cada una de las funciones vitales de nuestro idioma.

Creemos en la convivencia de las lenguas y en el reconocimiento recíproco de sus hablantes, cuyos derechos lingüísticos deben ser reconocidos y protegidos

Urko Aristi y Alaitz Artolazabal

Presidente y directora de TOKIKOM



¿TOKIKOM? Suena un poco a chino...

Alaitz Artolazabal.- Somos una sociedad que agrupa a 60 medios de comunicación locales. Somos distintos en tamaño, personalidad e incluso soporte físico, pero tenemos algunas características comunes: las más importantes son que trabajamos con información local y en euskera.

¿Por qué en euskera?

¿Eso no limita vuestro público?

A.A.- Es una de las características que nos define desde el principio, y nuestra razón de ser. La mayoría de los medios asociados a TOKIKOM surgieron en la década de 1980-90, como una herramienta para fomentar el uso del euskera. Por aquel entonces los grandes medios apenas prestaban atención a la información local, y surgió la idea de cubrir ese espacio con medios en euskera, hablando de lo que

pasa al lado de casa, en tu calle, en tu barrio. La idea era ofrecer al público información muy cercana y hacerlo en euskera. De ese modo, facilitamos a la gente que conoce el idioma que lo utilice para hablar de su vida cotidiana, y a quienes no lo conocen, les damos un motivo práctico para acercarse a él.

“Contamos la realidad desde el punto de vista local, incluyendo el idioma en que lo hacemos”

Urko Aristi.- La decisión de *ocupar* el espacio de la información local con medios monolingües en euskera ha supuesto también un pequeño oasis en el ámbito de los medios de comunicación. Basta con echar un vistazo a cualquier kiosko o a la parrilla de programación de televisión o radio para ver cuál es la oferta de entretenimiento e in-

formación en euskera en comparación con la que nos llega en otros idiomas: prensa, televisión, radio, internet... nos inundan con contenidos en castellano, francés, inglés... En ese panorama, poder ocupar el espacio de la información local con medios en euskera supone un pequeño gran respiro para quienes queremos vivir con normalidad en nuestra lengua.

Vuestros contenidos, entonces, se centrarán también en esa gente que funciona en euskera habitualmente.

U.A.- De ninguna manera. Siendo medios locales, nos interesa todo lo que ocurre a nuestro alrededor. No vivimos en una isla, ni queremos hacerlo. Queremos contar lo que sucede en nuestro entorno, lo que hacen nuestros vecinos, y sabemos que buena parte de esa actividad se desarrolla en otras lenguas que no son el euskera. Somos medios de proximidad, y estamos abiertos a las aportaciones que nos lleguen de la gente de nuestro entorno, sea en el idioma que sea. Quien nos conoce, sabe perfectamente que nuestras puertas están abiertas para quien tenga algo interesante que contar... y quien no nos conoce, debería hacerlo cuanto antes, je, je.

A.A.- Todo esto además no es nada nuevo que nos estemos inventando hoy para la entrevista. Hoy por hoy, son muchas las personas que, sin saber euskera, se acercan regularmente a nuestros medios a compartir sus inquietudes, contarnos lo que están haciendo, o simplemente a pedirnos que felicitemos a un familiar o amigo. Los

medios son un elemento más de las comunidades locales a las que pertenecen, y se desenvuelven con

toda normalidad en ellas, en el idioma que haga falta, no se trata de nada traumático. Nuestras puertas están abiertas, y es mucha la gente que las cruza con más o menos frecuencia. Es algo que agradecemos mucho, puesto que nos ayuda a ser medios mucho más completos, y a mejorar el servicio que ofrecemos.

La comunidad euskaldun, cada vez más amplia y diversa

Se calcula que hoy en día se hablan más de 100 lenguas en nuestro territorio. Junto al euskera, el castellano y el francés algunas de las lenguas más habladas son el árabe, el berebere, el wolof, el chino, el gallego, el rumano y el inglés.

Cada día son más las personas que han decidido vivir en euskera. Esta comunidad de hablantes crece también porque muchas personas que forman parte de nuestra sociedad y tienen lenguas propias han optado por aprender el euskera.

BARREN ha recogido el testimonio de cuatro personas de diferentes orígenes que han apostado por el euskera. La lengua madre de **Sele Mealelei** es el samoano; la de **Babou Ndong**, el serrer; la de **Matteo Cantù**, el italiano y la de **Cosmin Iga**, el rumano. Les hemos realizado tres preguntas:

1. ¿Por qué decidiste aprender euskera?
2. ¿Qué te ha aportado el euskera?
3. ¿Le recomendarías aprenderlo a otras personas que hablan tu lengua y viven aquí?

En términos generales, se encuentran satisfechos y satisfechas, y reconocen que el euskera les ha abierto numerosas puertas, por lo que invitan a otras personas a que se sumen a la comunidad euskaldun.



Matteo Cantù



1. Perché hai iniziato a studiare basco?

Ho iniziato a studiare euskera alla AEK subito dopo essermi trasferito a Elgoibar dall'Italia. L'ambiente in cui mi muovo (amici, famigliari, etc..) è totalmente euskaldun e, a parte il fatto di non capire le conversazioni, non mi piace il fatto che un gruppo di persone deva cambiare il proprio linguaggio di comunicazione per causa mia. Gente abituata da sempre a comunicare in Euskera si vede altrimenti obbligata a cambiare lingua per evitare che io non capisca. Tra l'altro i miei due bimbi sono bilingue (Euskera e Italiano) e anche se con me comunicano sempre in italiano mi piace l'idea di poterli capire in qualsiasi lingua si esprimano, anche al di fuori dell'ambito familiare.

2. Cosa ti ha lasciato il basco?

Sicuramente una maggiore integrazione nella realtà locale. Capire e parlare basco mi dà un forte senso di appartenenza alla comunità, mi fa sentire un po' meno straniero e un po' più "di casa".

3. Consigliaresti di studiare basco alle persone che parlano la tua lingua e vivono qui? Perché?

Certamente consiglieri a chiunque vive qui di studiare Basco. La lingua è la chiave per comprendere la cultura e integrarsi in essa. Se si vive nei Paesi Baschi e non si parla Basco, dal mio punto di vista ci si perde una parte importante della cultura locale e del modo di pensare della gente.

Babou Ndong



1. KHATAHOU BOKUMASSE ATHIANGA OUSKERRA? KUMASE AMA KUMASSE ATHIANGA OUSKERRA NE LACFAYE FELAJAMA.

2. KHARREF DEE A OUKERRA JHIRRI ÑOMA? MIHI A OUSKERRA AJHIRI NAJAM IANDIR FIWIN NICTHIATE MAYOU.

3. KHARREF KELEIKA SENEGALE LAKASWE? KELIKA SENEGALE LAKASWE OTEN REFE ATHIANGA OUSKERRA TIYADIEGNA O JHIRRIN NARREF. OSENEGALE FO SENEGALE OBAJHUNA.

Cosmin Iga



1. De ce ai început să înveți euskera?

Pentru a putea comunica cu copilul meu și cu persoanele din Euskadi.

2. Ce avantaje îți dă euskera?

Faptul că pot să înțeleg mai bine cultura bască și să mă descurc cu limbajul folosit aici mai ales la locul de muncă.

3. Recomanzi celorlalți români să învețe euskera?

Da sigur, de fapt am și făcut-o în repetate ocazii, și voi continua să fac.

Sele Mealelei



1. O le a le mafuaga autu ua e fia oacioina ai ia le euskera? Ona o au o loo ou nofo ma ola i to tonu o lenei atunun e igoa ia Euskal Herria. Ia e faapea foi ona ou fiafia e aoao lana gagana.

2. Ole a te foai a le euskaraz ia te oe?

Ia ua aumai ia te au ia se loto fiafia ile avea ai ua mase tasi a lana aganun aemaise ai foi lou nofo mau ai iinei ma le mafutaga ma ona tagata.

3. Ole a se tala a oe i tagata e latou te leiloa ia le euskara?

Ia ou te manatu e tatau ona aoaoina ei latou ia le euskera aua e iloa ai lana tu ma lana aganuu, faapea le tala autu o ona tagata.

Tertuliak programa: 41 lagun 11 taldetan asteen behin euskaraz berbetan jarduteko

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

Tertuliak programa abian da aurten ere. Euskaraz berba egiteko zailtasunak dituztenei laguntza eskaintzea du helburu. Herritarren arteko hartu-emanak erraztuz asteen ordubetez euskaraz berbetan jarduteko bidea irekitzen du programa honek Elgoibarren. 2001ean jarri zen abian egitasmoa eta 2015-2016 ikasturterako 41 lagunek eman dute izena 31 bidelarik eta hamar bidelagunek. Hogei lagun berri hasi dira –programa indartzen ari den seinale– eta 11 talde osatu dituzte guztira.

Elgoibarko Izarra hasi zen programarekin eta Udala, AEK eta HABE ditu bidelagun. Aurten, besteak beste, bidelagunak lortzeko euskaltegietatik eman dituzte izenak. Hala esan digu Tertuliak programa koordinatzen den Ane Goikoetxea.

Lagunak egin eta euskara ikasi

Asteen behin elkartzen da Ane beste hiru emakumerekin kafe banaren bueltan euskaraz hitz egiteko. Horietako bat da Rebeca Esteban eta elgoibartarra ez denez, jendea ezagutzeko modu bat izan zitekeela iruditu zitzaion. “Gainera, nire gurasoek ez dute euskaraz hitz egiten, eta nik txikitatik euskaraz ikasi arren, gero, lana zela-eta pixka bat galdu nuen. Beraz, tertuliek euskara praktikatzeko eta euskaraz bizitzeko bidea ireki didate. Lau urte dararatzat, oso gustura nago eta jarraitu nahi dut. Euskaraz hitz egiteko konfiantza eta aukera gehiago eman dizkit”.

Esti Aranegi euskaltegiaren zebilen hasi zenean. “Ezkonduta eta gero ikasi nuen euskaraz, euskaltegian ibili nintzen. Tertuliek balio izan didate jendea ezagutzeko, euskaraz pixka bat ikasteko eta hitz egiteko. Esaterako, nire senarraren familian euskaldun zaharrak dira eta lehen ez nien ezertxo ere ulertzen, orain bai”.

Bestelakoa da Anek egin duen bidea. Gazteluarra da izatez eta Elgoibarrera etorri berritan Elgoibarko Izarrako bazkide egin zen. “Euskaraz baino hitz egiten ez zen herri txiki batetik nentorren eta euskara niretzat balore handia zen. 1994an linguistikako jardunaldi batzuetan izan nintzen eta sentitu nuen hori zela nik behar nuen, beraz, elkartean laguntzaile bezala hasi nintzen, lehe-

nengo kultur taldeetan eta gero tertulietan”, azaldu digu.

Euskararen inguruko jardueretan aritzea du gogoko eta beste herrietako tertuliakideak elkartzen diren Mintza egunera ere urtero joaten da. “Nire nahia da euskararen bueltan ibiltzea eta honekin guztiarekin oso pozik nago.”

Familiako moduan

Urtero izan du talderen baten ardura eta programa antolatzen ere aritzen da. Urtetako ibiliak jende asko ezagutzeko aukera eman dio berari ere. “Bakoitza mundu bat gara, baina astero-astero elkartuz ia familiakoak balira bezala ikusten ditut. Badakigu batek bestearen bizitzari buruz, askotariko gaiez hitz egiten baitugu”. Euskaraz hitz egitea da kontua, baina Anek askotan pentsatzen du “hizkuntza gehiago landu beharko nukeela. Ez naiz ikasia, euskararen analfabetua naizela uste dut, baina herrian apai-zarekin egiturak-eta ikasi nituen, eta Danobat utzi nuenean EGA ere ateratu nuen”.



Esti Aranegi, Rebeca Esteban eta Ane Goikoetxea asteroko tertulian.

Ane Goikoetxea koordinatzaile izateaz gain, bidelagun ere bada eta guztira hamar daude programan orain. Ibona Loiola euskalduntzazharra da eta bidelaguna. Euskaldunen beharra zegoela, eta asteen ordubete beretzat asko ez zela ikusita, eman zuen izena tertulietan orain dela bost urte eta oso gustura dago. “Jende berria

sartuz joan da taldean, baina batzuk hasieratik daude eta urtetik urtera euskararen aurrerapausoak ematen dituztela ikusteak asetzen nau. Azken finean ikusten dut ahaleginak balio duela”.

Euskara ikasten dabilen jendeari programa hau eskaintzea oso garrantzitsua dela uste du Ane Goikoetxea. “Gehienek ez daukate euskal ingururik eta daukatena ere ez dago euskaraz hitz egiteko ohitura eta berekin are gutxiago, eta hori ezin izaten dute apurtu, beraz, asteen behin aukera ematea oso ondo dago”.

Beraz, norbaitek bidegile zein bidelagun modura izena eman nahiko balu Elgoibarko Izarran edo euskaltegietan emango diote egitasmoaren berri.

'Metalaren arrastoak' argazki liburua aurkeztuko dute Edu Arrillagak eta Esmeralda Zapparolik hilaren 11n

Elgoibarko industriaren alderdi humanoa iruditan jaso nahi izan dute Edu Arrillaga eta Esmeralda Zapparoli argazkilari elgoibartarrek *Metalaren arrastoak* liburuan.

Santa Klarako komentuan mojek josteko makinentzat egiten zituzten pedalen harira hainbat argazki atera zituzten 1994an eta 1996an Sigma lantegia husten ari zirenean beste batzuk. Artxi-boan gorde eta erreminta-makinaren mendeurrenaren harira hasi ziren ideia lantzen Arrillaga eta Zapparoli.

Makinak eta pertsonak

Gordetako argazkien berri eman zuten Udalean eta interesgarria iruditu arren, gaur egungoari garrantzia ematea aproposagoa zela iritzita, gaiari heltzea proposatu zieten. Oso erronka handia izan dela esan digu Esmeralda Zapparolik: "Lagun batzuk erreminta-makinan aritu arren, guk ez genuen Elgoibarko herriaren industria ikuspegirik, beraz, argazkilaritzako ezagupenetatik abiatu ginen". Lan honekin Elgoibarko industriari buruzko ideia orokor bat eman nahi izan dute "batik bat arlo humanoari buruz. Izan ere, denak dira makinak, baina makinak pertsonak egiten dituzte eta beraiekin pertsonak egiten dute lan".

Enpresekin harremanak lan handia eman die. "Komertzialekin, marketing arduradunekin, segurtasunekoekin... hitz egin behar izan dugu eta hainbatetan erantzuna jasotzerako hiru hilabete pasa dira". Lan handia bai, baina enpresek emandako konfiantza azpimarratu du. "Baldintza asko jartzen dituzte segurtasunari edo

konfidentziasunari dagokionez eta ez da edozein sartzen, are gutxiago argazkiak ateratzera, baina ahalegin guztia egin dute guri laguntzeko. Uste dugu argazki hauek ateratzea posible izan dela gu hemengoak garelako, beste argazkilari batzuri ez liekete guri adinako konfiantza emango".

Hamar enpresatan atera behar zituzten argazkiak, baina 37tan izan dira eta penaz daude Elgoibarrek gehiago eman dezakeelako eta ez dutelako denborarik izan. "Saiatu gara ahalik eta gauza gehien irudikatzen: galderagileak, soldatzailak, moldeak eta planoak egiten dituztenak... Gida baten pareko zerbait egin dugu, baina enpresen edo enpresetako makinaren publizitate katalogo bat izan gabe. Material didaktikoa izatea ere ez genuen nahi. Argazkiari eman diogu garrantzia. Koherentzia izan dezaten pausu guztiak ikusiz"

Argazkiak bienak dira eta Eduk batik bat ikuspegi humanotik atera ditu, Esmeraldak, berriz, espazioak eta objektuak. Hitzek ere izango dute lekua: alkatearen hitzaurrea du liburua, informazio profesionala Arantza Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailburuaren eta Xabier Ortueta Makina Erreminta elkarteko idazkariaren eskutik; eta Koldo Lizarralderen testu historikoa, Jasone Osororen literarioa eta Jose Manuel Diaz burgos argazkilariairenekin.

Liburua abenduaren 11n aurkeztuko dute Kultur Etxean 19:00etan eta ondoren, argazki erakusketa egongo da urtarrilaren 9ra bitartean.



Edu Arrillaga - Esmeralda Zapparoli

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen sarrerak

Amalur ikuskizuna eskainiko dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen Elgoibarren, urtarrilaren 2an, Herriko Antzokian, 16:30ean eta 18:30ean. Sarrerak Udalaren arreta bulegoan eskuratu ahal izango dira abenduaren 15ean (09:00-14:00) eta 16an (16:00-19:00). Prezioa 8 eurokoa da helduentzat, eta 6 umeentzat. Bakoitzak 4 erosi ahal izango ditu gehienez eta elgoibartarrek dute lehentasuna.

Izen-ematea jaiotza lehiaketa eta kabalgatan

Abenduaren 13an Gabonetako jaiotza lehiaketa izango da 14 urtetik beherakoentzat. Hilaren 12an izena eman behar da 11:30etik 13:30era parrokiako lokaletan edo elgoibarkojaiotzak@gmail.com helbidean. Jaiotzak iganean 10:30erako eraman behar dira Bestalde, kabalgatan parte hartzeko izen-ematea 14an eta 15ean izango da Udal liburutegian eta 17an 17:00etatik 18:00etara kristau ikasbideko lokaletan.

Bertso saiorako sarrerak salgai abenduaren 9tik

Elgoibarko Izarrak antolatutako bertso saioa abenduaren 28an izango da aurten 22:00etan, Herriko Antzokian. Uxue Alberdi gai-jartzailearen esanetara arituko dira Maialen Lujanbio, Alaia Martin, Andoni Egaña, Miren Amuriza eta Jon Maia bertsolariak. Sarrerak aurrez salduko dituzte abenduaren 9tik 23ra artean 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30era Elgoibarko Izarraren Ubitarteko lokaletan.

Pilotari buruzko mahai inguruarekin hasiko da Kirol Federatuaren Urteko Sarien ekitaldia

Kirol Federatuaren Urteko Sariak banatuko ditu abenduaren 21ean Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak. Ekitaldi hasieran pilotari buruzko mahai inguru antolatu dute eta goi mailako lau pilotari gonbidatu dituzte solasaldira: Aimar Olaizola, Juan Martinez de Lrujo, Jokin Altuna eta Iñaki Artola. Honenbestez, esku pilotaren orainak eta etorkizunak bat egingo dute Elgoibarko musika eskolako auditorioan. Batetik, kirol ibilbidean dena irabazitako bi pilotarik, Aimar Olaizola eta Juan Martinez de Lrujo nafarrek; eta, bestetik, zeresan handia ematen ari diren bi pilotari gaztek: Jokin Altuna (Amezketan, 1996) eta Iñaki Artola (Alegia, 1994) gipuzkoarrek. Mahai-inguruaren ostean, herriko 19 elkartet egindako lanari aitortza egingo diote Kirol Federatuaren Urteko sarietan. 2015 urtean nabarmendu diren kirolari, entrenatzaile, jokalarik ohi, laguntzaile, zuzendaritzako kide edo babesleei errekonozimendua erakusteko baliatzen ditu Udal Kirol Patronatuak Kirol



Federatuaren Sariak. Pilotak leku berezia izango du aurtengo sarietan eta pilota munduko bi enpresari omenduko ditu Udal Kirol Patronatuak. Batetik, Asegarce pilota enpresako Iñigo Salbidea, eta bestetik, Aspeko Fernando Bidarte.

Azken 25 urteetan Kirol Patronatuak antolatu dituen San Bartolome jaietako esku pilota jaialdiak "maila oso handikoak" izaten ahalegindu direlako sarituko dituztela jakinarazi du Patronatuak. 19:30ean hasiko da ekitaldia.

Concepto Egilek bi jokalarik fitxatu ditu

Debarrena areto futbol taldeak bi jokalarik berri fitxatu ditu lehen talderako. Concepto Egilerekin jokatuko dute aurrerantzean Javier Beitia Perez (Gasteiz, 1985) eta Mikel Carretero Marquez (Gasteiz, 1992) jokalariek. Beitia eskarmentu handiko jokalaria dela azaldu du klubak. Atletico Aretxabaleta taldean hasi zue kirol ibilbidea eta 2009tik 2015era Gasteizko Donga Casual taldeko jokalaria izan da. Mikel Carretero, berriz, etorkizun handiko atezaina izan daitekeela uste du klubak.



Javier Beitia eta Mikel Carretero gasteiztarrek dira Concepto Egileko azken bi fitxaketak.

Sabrina Vega Jaime Santosen ordezkake txapelketan

Sabrina Vega (La Palma, 1987) xake jokalarik espainiarrak hartuko du Jaime Santosen lekua Elgoibarko 25. Xake Txapelketan, antolatzaileek jakinarazi duten azken orduko aldaketa dela-eta. Hiru alditan izan da Espainiako txapeliduna emakumezkoetan, azkena aurtun. Abenduaren 14tik, astelehena, abenduaren 20ra bitartean jokatuko dute Elgoibarko nazioarteko xake txapelketa, udaletxeko pleno aretoan.

Euskal piraguisten abenturak Morkaikoren mendiko emanaldien azken saioan



Morkaiko Mendizale Elkartek prestatu duen Udazkeneko Mendi Emanaldien Zikloa *Caminos de Agua* izeneko filmaren emanaldiarekin amaituko da, datorren abenduaren 17an. Hiru euskal piraguistak burututako hilabete inguruko bidaia kontatzen du 52 minutuko filmak, Patagoniako mendietatik hasi eta Pazifikoko uretara arte. 600 kilometroko bidaia, zeinetan ur-jauzi eta erreka berriak bilatu eta Patagoniako laku handiak zeharkatu zituzten. Filmaren egile Mikel Sarasola Elgoibarrera etorriko da bere lana aurkeztera. 21:30ean hasiko da emanaldia eta hiru euroan salduko dituzte sarrerak.

Gipuzkoako arku tiraketa txapelketa, Elgoibarren

Gipuzkoako 25. Arku Tiraketa Txapelketa Elgoibarren jokatu dute abenduaren 13an. Elgoibarko Zarta Arku Tiraketa Elkartek antolatu du, Udal Kirol Patronatuaren laguntzarekin. Olaizaga kiroldegian batu da Gipuzkoako arkularirik onenak. 09:00etan hasiko da lehiaketa.



Patinaje pista abenduaren 18an zabalduko dute

Aurten ere patinatze pista jarriko du Elgoibarko udalak Lekueder parkean. Abenduaren 18an zabalduko dute eta urtarrilaren 6ra arte egongo da zabalik. Egunero egongo da zabalik, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da. Abenduaren 24an eta 31n aldaketa egongo da arratsaldeko orduetara: 16:00etatik 18:00etara irekiko dute pista.



Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 2 - Hondarribia 1
 Elgoibar 4 - Getariako Keta 1 (1. Erreg)
 Urola K.E. 0 - Elgoibar 1 (Oho. Jub.)
 Elgoibar 0 - Aloña Mendi 0 (Oho. Kad.)
 Urki C.D. 2 - Elgoibar 1 (A Kadeteak)
 Arrasate 3 - Elgoibar 3 (Oho. inf)
 Aretxabaleta 3 - Elgoibar 0 (Inf. Txiki)
 Amaiak Bat 1 - Elgoibar 11 (Aleb.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 0 - Santurtzi 4 (Naz. B)

SASKIBALOA

Oiartzungo Saskilagunak 45 - Viento Sur Elg. 36

ESKUBALOA

Alcorta Forging Group 35 - Quiron Askartza 29 (Senior giz.)
 Gabaz Elg. 26 - Urola 17 (Senior giz.)
 Usurbil 39 - Tecnifuelle Elg. 29 (Jub. nesk.)
 Bergara 21 - Beristain Banaketak 32 (Jub. mut.)
 Casa Astigarraga 24 - Ordizia 10 (Kad. nesk.)
 Bankoa Elg. 27 - Bidasoa 29 (Kad. mut.)
 Deca Elg. 42 - Urnieta 27 (Kad. mut.)
 Eibar B 8 - Dario Bus Elg. 39 (Inf. nesk.)
 Eibar A 14 - Cometel 28 (Inf. neskek)
 Federopticos Ikus. 15 - Urola 9 (Inf. nesk. lagunartekoa)
 Hotel Txarriduna 20 - Eibar B 16 (Inf. mut.)
 Amenabar 17 - Murgil 29 (Inf. mut.)

Agenda

ESKUBALOA (Olaizagan)

Zapatua, 5
 11:00 Bankoa - Amenabar (Kad. mut.)
 17:30 Lauko - Lagunak (Denior emak.)
 Martitzena, 8
 11:30 Beristain Elg. - Leizaran (Jub. mut.)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 5
 10:00 Elgoibar - Lagun Onak (Oho. inf.)
 11:30 Elgoibar - Urki (Infantil Txiki)
 16:00 Elgoibar - Intxurre (Oho. jub.)

LANA.....

Eskaerak

LHko haurrei eskola partikularak emateko prest nago. Bereziki ingelesa. 666 667 183

Gau eta arratsaldeetan pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Gida-baimena dut. 631 343 232

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago, orduka eta baita etxean bertan bizi izateko ere. Esperientziarekin eta erreferentzia onekin. 626 407 923

Elektrizitate -diploma daukat-, pintura edo iturgintza lanetan jarduteko prest, baita adinekoak zaintzeko ere. 632 873 111

Edozein lan egiteko prest nago. 632 459 224

Adinekoak zaintzeko prest, interna moduan. Esperientzia eta erreferentzia onekin. 632 488 771

Etxeak, lokalak, tabernak... garbitzeko prest nago. Berehala lanean hasteko prestutasuna. Erreferentzia onak ditut. 648 039 187

Lantegietako biltegietan lan egiteko prest (esperientziarekin). Baserrietako animalien zaintzetan eta egurra moztzen arihua. 632 617 342

Garbiketa lanetarako prest, interna edo externa moduan. Dendari moduan ere esperientziarekin. 602 172 993

Sukaldari laguntzaile lanetarako eta adinekoak zaintzeko prest nago. Janari manipulatzaile titulua eta nagusiak zaintzeko ikastaroak eginak ditut. 661 064 027

Arratsaldeetan umeak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz eta esperientzia dut. 615 734 462

Portalak garbitzeko prest nago. 617 571 210

Pertsona nagusiak zaintzeko prest, esperientzi handia, lehen sorospen tituluduna, orduka lan egingo nuke. 632 687 874

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. 667 301 325

lan egiteko prest nago. 602 815 492

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. 631 562 380

Adinekoak zaintzen, portalak garbitzen edo sukaldari laguntzaile lan egiteko prest. 637 074 529

Pertsona nagusiak zaintzeko eta etxeak eta tabernak garbitzeko prest. 943 901 752

Banatzaile, zamalan eta garbiketa lanetarako prest. 666 107 260

Sukaldari laguntzaile lanetarako, nagusiak zaintzeko edo tabernak garbitzeko prest. 677 250 560

Umeak zaintzeko, interna moduan gauzez edo orduka jarduteko prest. Esperientzia handia. 631 832 388

Eskaintzak

Doitze eta muntaia mekaniko lanetan ibilitako pertsona behar da. Bidali curriculum-a Zarauzko 309 Posta Kutxatilara.

15-30 urte bitarteko mutil gaztea behar da, ostiral eta larunbat arratsaldeetan (18:00-21:00) beste mutil gazte bati konpainia egiteko. 615 787 118

Sukaldari laguntzailea behar da Eibarko taberna baterako. 620 810 120

ETXEBIZITZAK.....

Alokairua

Pertsona nagusientzako bereziki egokitutako etxebizitza eskaintzen dugu alokairuan. Erdigunean dago. 600 901 675

Familia batek bi logelako etxea hartuko luke alokairuan Elgoibarren. Gehienez 400 euro ordain ditzakegu. 637 207 806

Familia batek hiru logelako etxebizitza hartuko luke alokairuan Elgoibarren. 632 198 561

Etxe txikia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. 632 175 172

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan. 677 259 560 / 661 064 027

GARAJEAK.....

Salmenta

Etxebizitza saltzeko premia! Zenbatekoa negoziagarri. Bernardo Ezenarro 4, I.C. Trastelekua eta garaiea ditu.

LOKALAK.....

Alokairua

Elgoibarko erdigunean taberna-kafe-tegia emango nuke errentan. 605 741 485

BESTELAKOAK.....

Karro-denda salgai (Wolden Altamira). Egoera oso onean. 4-6 toki. Osagai guztiak barne (hozkailua, sua, bi kutxa...). 1.800 euro. 615 734 462

Hiru hilabete eta erdiko bi katu emango nituzke opari. Ondo zainduko dituen norbaitentzat. 943 740 687/629 434 161

Lur saila erosi edo alokatuko nuke oilategiarekin. 943 740 318

Tornuak egiteko tailer mekanizatua alokairuan ematen dut, erosteko aukerarekin. 670 406 748

Haurtxoarentzat Maxi-Cosi eta Bugaboo Camaleon beltza salgai (kapazoa eta aukitxoak), osagarriak barne eta zakuak ere bai. Egoera onean. 500 euro. 665 727 979

Bigarren eskuko Venus 4 sport etxeko elbarrituentzako motorra salgai. 675 711 860



P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar
 ☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Jabeen elkartearen eraikina inguratzen duen lursaila, elkartearen dokumentazioaren arabera, modu eksklusiboan eta pribatuan merkataritza lokalei dagokie. Orain, gune hori konpondu behar da oso hondatuta dagoelako. Nork ordaindu behar ditu gastuak?

Hainbat jurisprudentzia irtenbide daude horrelako elementuen zaintza eta konponketen harira. Batetik, hainbat iritziren arabera, gune horren konponketak, lursail hori modu eksklusiboan erabiltzen duenaren ardura izan beharko luke. Bestalde, elkarrekin egin beharko luke konponketa, kalteak eraikinaren egiturak eragindakoak direnean.

Hala ere, gehien erabiltzen den irizpidea da konponketen ardura jabeek ematea egin beharreko konponketak eta gastuak gune horren erabilera arrunt batek eragindakoak direnean. Jabeek bere gain hartu behar dituen konponketen artean dago besteak beste zoladura berriz jartzea.

Era berean, jabearen ardura da, ohiko konponketa gunearen mugetatik harago egiten diren lanena. Baldin eta jabearen arduragabekeriak edo erabilera txarrak zein mantenu egokirik ezak eragindakoa bada.

Datuok aintzat hartuta, nire ustez, susmagarria da lursaila egoera txarrean egotea lokalen jabeen erabilerak eragindako higadura dela-eta. Beraz, egitura kontua ez denez, lokalen jabeek hartu beharko dute lanen ordura osotasunean.

AHOLKUA: Horrelako egoeretan, datu guztiak aztertu beharko liriteke egin beharreko lanen gastuak ordaintzea nori dagokion erabakitzeke.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira
BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Hegoa**, abenduaren 9an 5 urte beteko dituzulako. Familia-koen eta batez ere Arhaneren partez.



Zorionak, gure **printzesa Malen** zure lehenengo urtebetetzean. Etxeko guztien partez.



Zorionak, **Aimar**, gaur 2 urte bete dituzulako. Bete bezain alai jarraitu ezazu. Muxu potolo bat familia-koen partez.



Zorionak **Nahia**! 15 urte! Ondo baino hobeto pasa abenduaren 6an! Musuak, Elgoibartik Bilbora! Aitxitxa-amama, Maite eta tio.



Zorionak **Jun-kal**, igandean 7 urte beteko dituzulako! Muxu handi bat familia-koen denen partez.



Zorionak, **Adria**, igandean 10 urte beteko dituzulako! Zure anaia-koen eta lehengusuen partez.



Zorionak **Elene**, hilaren 9an 8 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familia-koen partez.



Zorionak, **Aitana**! Gaur bete dituzu 2 urte, zorionak etxeko-koen bereziki Eriken partez. Muxu handi bat.



Zorionak, **printzesa**, zure bostgarren urtebetetzean. Muxu handi bat familia-koen eta batez ere Maddiren partez.



Zorionak eta 18 patxo handi!!!

Erretratu bakarrekogurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekogurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

ESARRI AUTOAK

MARKA GUZTIAK

Olaso, 17
20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 741 480
Fax: 943 031 576
Jon: 679 241 623
Anton: 680 358 573
e.mail: esarriauto@gmail.com

ZERBITZUA



PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTSEN OPARI PAPERA ESKURATU NAHI DUZUE?

BARREN astekarian salgai

1€

basquestay



www.basquestay.com
info@basquestay.com
606 747 756

Apartamentu baten jabe bazara, alokatu eta diru iturri bilakatu

4 BARIXAKUA

17:30 Gabonetako argiak piztuko dituzte herriko kaleetan. Urtarrilaren 6ra arte.

19:00 Kantu kalejira Mendaron, Euskaren eguna. Arno elkarte. Azpilgoetatik.

5 ZAPATUA

11:00-13:00 Palestinako umeentzako material bilketa. Pablo Garrido. Maalan.

17:00 Jubilatuen astea: Sorpresa. Zaharren Biltokian.

6 DOMEKA

12:00 Jubilatuen astea: meza, hil diren jubilatuen omenez. Parrokian.

18:00-21:30 Dantzaldia Gelatxo orkestrarekin. Zaharren Biltokian.

10 EGUENA

19:00 Giza Eskubideen Nazioarteko Egunean preso gaixoen eta sakabanatuen eskubideak aldarrikatzeko kale agerraldia. Antolatzailea: Sare. Kalegoen plazan.

11 BARIXAKUA

19:00 *Metalaren arrastoak* liburuaren aurkezpena. Esmeralda Zapparoli eta Edu Arrillaga. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Jarraian, erakusketaren inaugurazioa. Urtarrilaren 9ra arte. Astelehenetik zapatara 18:30etik 20:30era; domekaeta jai egunetan 12:00etatik 14:00etara.

17:00-20:00 Gurutze Gorriko jostailu berrien bilketa. Aita Agirre plazako lokalean.

20:30 Antzerkia: *La verdadera historia de Romeo y Julieta*. Ezezagunok Antzerki Elkarte. Herriko Antzokian.

23:00 Kontzertua: Bikustik. Kultur Etxeko sotoan. Sinüose.

12 ZAPATUA

9:22 *Aranerrea (Kilimon)*: Uraren misterioak ibilaldia, Inma Mugerza geologoak gidatuta. Antolatzailea: Haizea. Tren geltokian, Mendarora joateko.

10:00 Olentzeroren etxea bisitatzeko familia irteera. Txankakuan. 18:00etan buelta. Atxutxiamaika eta ludoteka.

11:00-13:00/17:00-20:00 Gurutze Gorriko jostailu berrien bilketa. Aita Agirre plazako lokalean.

16:00 Igeriketa erakustaldia. Olaizaga kiroldegian.

13 DOMEKA

9:00 Gipuzkoako 25. Aretoko Arku Txapelketa. Olaizaga kiroldegian.

10:30 Jaiotzen lehiaketa Parrokiako arkupeetan. Sari banaketa 13:00etan.

12:30 Udal Musika Bandaren Gabonetako kontzertua. Programa: *Bellas artes pasodoblea* (A, Nieto), *New York overture* (Kees Vlák), *Disney fantasy* (N. Iwai), *Holanda eta bere bandak* (Dokumental laburra), *White Christmas* (I. Berlin-Iwai) eta *Gabon kantak*. Herriko Antzokian.

16:30 Familia antzerkia: *Txipli Txapla, Tomaxen abenturak*. Herriko Antzokian.

14 ASTELEHENA

12:00 XXV. Nazioarteko Xake Txapelketaren aurkezpena, udaletxeko pleno arretan. Saiokak, 17:00etatik aurrera. Azaroaren 14tik 20ra bitartean.

15 MARTITZENA

18:00-20:00 Literatura tailerra: *La noche de los tiempos II*, Muñoz Molina. Antolatzailea: Haizea. Gotzon Garate Udal liburutegian.

16 EGUAZTENA

19:30 2016ko egutegiaren aurkezpena eta sari banaketa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

17 EGUENA

15:00 Ikastolako DBHko ikasleen Gabonetako jaialdia ikasleentzat. 19:00etan gurasoentzat. Herriko Antzokian.

18 BARIXAKUA

16:00-20:00 Patinatzeko pista irekiko dute. Urtarrilaren 10era arte. Egunero 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Lekueder parkean.

22:30 Antzerkia: *Bohemioen kluba*. Taupada Antzerki Taldea. Herriko Antzokian.



Sabina Bergaretxe Ardanza

2015eko azaroaren 26an hil zen.

Maria Isabel Zabaleta Bergaretxe

2010eko irailaren 1ean hil zen.

Zuen oroimenak indartzen gaitu.

Familia



Zinea (Herriko Antzokian)

<p>'Black Mass' 4 Barixakua, 21:30 5 Zapatua, 19:00/22:15 (Jatorrizkoa azpitupekin) 6 Domeka, 19:00</p>	<p>'Pan, sekula betirako bidaia' 6 Domeka, 16:30</p>	<p>'Un otoño sin Berlin' 7 Astelehena, 21:30 8 Asteartea, 19:00</p>	<p>'El clan' 12 Zapatua, 19:00/22:15 (Jatorrizkoa azpitupekin) 13 Domeka, 19:00 14 Astelehena, 21:30</p>	<p>'Camino de agua' 17 Eguena, 21:30 (Ongarri+Morkaiko)</p>
--	---	--	---	--

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G	09:00 - 22:00		
U	4 Barixakua YUDEGO	9 Eguaztena GARITAONANDIA	14 Astelehena ORUESAGASTI
A	5 Zapatua ORUESAGASTI	10 Eguena ETXEBERRIA	15 Martitzena BARRENETXEA
R	6 Domeka ORUESAGASTI	11 Barixakua FERNANDEZ	16 Eguaztena IBAÑEZ
D	7 Astelehena BARRENETXEA	12 Zapatua YUDEGO	17 Eguena GARITAONANDIA
I	8 Martitzena ETXEBERRIA	13 Domeka YUDEGO	18 Barixakua ETXEBERRIA
A	22:00 - 24:00 Astelehenetik domekara GARITAONANDIA	24:00 - 09:00 ELORZA (Eibar) Juan Gisasola, 18- 943 206 100	
K	* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel.: 943 756 142	* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) Tel.: 943 751 638	* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384



37 URTEZ ZUEKIN

San Francisco, 21
20870 ELGOIBAR
Tel: 943740359



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192



Gure urteurrena ospatzeko oparia:
Boleto hau ekarriz gero 10€ko deskontua
eskuratuko duzu zure erosketan.
Erosketa bakoitzeko txartel bat.



Manu Sanchez

Unai Villena



Aspaldian elkarrekin hitz egin gabe egon eta zer moduz zauden galdetzeko deitzen dizudan bakoitzean, beti ematen didazu zure azkenaldiko gorabeheren berri. Zure diskurtso ezkorrean dena da kezka, dena estutasun, dena arazo konponezin... eta nik gauza bera pentsatzen dut beti: trafikoak itotako biribilgune bat bezalakoa zara.

Bizi zaren kaosean, denbora gehiena gauzak ordenan jartzen eta hankaz gora jarri direnean, berriz ordenan jartzen ematen duzu, etengabeko ziklo errepikakorrean. Zugan ez dago inolako geldiunerik, ezta lasaitasunerako paradarik ere. Guztia nahasten duten kanpoko indarrek eginbehar hutsezinak inposatzen dizki-

zute, erabili egiten zaituzte, zuzen ikustea galarazten dizute, eta, noizean behin arnasa sakon hartzeko uneren bat izaterik lortzen baduzu, orduan hutsik sentitzen zara, itota, hainbeste egitekoren eta hainbeste egitekoren artean, bizi zaituen kaosean. Kaosean bizi zara eta kaosak bizi zaitu. Horregatik ez zara gai zure errutinaren errepidetik at so egin eta inguruan daukazun hori guztia ikusteko. Uneoro asfaltoari begira egoteak ondoko zuhaitzak eta erreka ikustea galarazten dizu.

Askotan esan dizut, eta beste behin ere errepikatzen noa, idatziz oraingoan: bizitzan, guztia perspektiba kontua da, eta zuk, guztiari okerreko perspektibatik begiratzen tematua dirudizu. Aldatu ikuspegia; aldatu txipa; utzi inora ez zaramatzaten kezken inguruan biraka ibiltzeari; pikutara bidali ustezko arazo horiek eta bizi!

“Zure diskurtso ezkorrean dena da kezka, dena estutasun, dena arazo konponezin. Trafikoak itotako biribilgune bat bezalakoa zara”

HERRIKO DENDAK HERRIKO JENDEARENAK

Iratxeren
altzari-denda

Josebaren
gimnasioa

Aitorren
okindegia

Elsaren
fruta-denda

Lauraren
zapata-denda



Herriko dendak herriko jendearenak dira; jende **langilea**,
lana sortu eta gure kaleak **bizirik** mantentzen dituena.

HERRIKO DENDEK ZURE LAGUNTZA BEHAR DUTE, EZ HUTS EGIN

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN ETA
LEHAKORTASUN SAIA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
DoktorEa

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian,
Periodontzian, Inplantologiari.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t** Eta **twitter**ren: @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, N° 12 - 1° - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com